# PROYECTO DE PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2013

## MEMORIA

El presente presupuesto que presenta la Junta de Gobierno para su aprobación por la Junta General comprende los medios económicos del Colegio destinados a la consecución de sus fines durante el **ejercicio de 2013** y se ha elaborado bajo los principios de prudencia contable, eficacia y contención del gasto, manteniendo los servicios colegiales con un **incremento cero en las cuotas colegiales** respecto al ejercicio anterior, siendo éste **el quinto año** en que no se suben las cuotas colegiales.

En esta ocasión se presenta por la Junta de Gobierno un presupuesto algo inferior al del año precedente, lo que supone un descenso en cuanto a gastos e ingresos de un 5,34% con respecto al del año 2012. Ello es debido principalmente a que desaparece del presupuesto la partida correspondiente al seguro de Incapacidad Profesional Transitoria (IPT, que supuso un importe de 351.600 ú en el ejercicio anterior). Esto no significa que deje de existir este seguro, sino que al haberse convertido en voluntario no resultará ninguna carga para el Colegio y recibirá un tratamiento contable similar al del Seguro de Responsabilidad Civil, de forma que el Colegio contabilizará por un lado las cuotas que cobrará a los colegiados y por otro la cantidad que abonará a la compañía aseguradora, que será similar, por lo que desaparece como centro de coste.

También hemos de destacar la influencia que en presupuesto tiene la subida del IVA.. A estos efectos el Colegio ha de ser considerado como último consumidor, afectándole la subida directamente a todas las compras de bienes o servicios que realiza, siendo en todo caso un alza en los precios que abonamos a nuestros proveedores.

Con el fin de ofrecer de forma clara y sencilla pero a la vez completa para el colegiado, se establece el presupuesto en base a la contabilidad analítica que tiene establecida el Colegio, describiendo de forma exhaustiva los centros de costo y los conceptos a los que el Colegio destina sus fondos así como las vías de entrada de ingresos también desglosada por las mismas partidas.

Junto al detalle de cada una de los centros se incluye igualmente lo presupuestado el año anterior, con el fin de poder analizar cada uno de los conceptos y ver la evolución que ha sufrido en su cuantía.

Las dos primeras columnas reflejan el sumatorio de todos los centros de gasto, comisiones o grupos de estudio del Colegio, y la primera de ambas incluye todas las que son el proyecto del presupuesto para el año 2013 y la segunda es la suma de los centros del presupuesto del año anterior.

A pesar del desglose exhaustivo que se realiza recogiendo todas las partidas presupuestarias según centros de gasto o de ingreso, en esta breve memoria se comentan algunos aspectos que se quieren destacar por su relevancia, sin perjuicio de la amplia información y explicaciones que se ofrecerán, como viene siendo habitual, por parte del Tesorero del Colegio en la **Junta General** que tendrá lugar el próximo día **28 de diciembre a las 13,00 horas,** en el Salón de Actos del Colegio, calle Rampas de Uribitarte 3 de Bilbao.

**De forma más pormenorizada quisiéramos destacar las siguientes partidas:**

## GASTOS:

## Servicios Generales:

En este concepto se engloban todos aquellos gastos e ingresos de estructura o funcionamiento ordinario del Colegio que no pueden ser atribuidos a otro centro de coste concreto de la analítica, por ello se trata de la partida o departamento de cuantía más elevada.

Se incluyen, entre otros, los gastos derivados de la gestión ordinaria del Colegio, del mantenimiento y conservación del edificio, los gastos generados por las oficinas y administración colegiales así como los ocasionados en las diversas sedes ubicadas en los Palacios de Justicia de toda la provincia, los de la biblioteca colegial, gastos telefónicos y de conexión entre las sedes, sistema inalámbrico de acceso a Internet Wi-Fi o los derivados del mantenimiento de nuestra página web o del sistema informático, los que provienen de las juras de nuevos colegiados ó los gastos e ingresos derivados del mantenimiento de las fotocopiadoras e impresoras del Colegio, así como los derivados del personal y de los profesionales que se contratan etc.; todos ellos generados por el funcionamiento ordinario de los diferentes servicios del Colegio.

Se trata del centro de gasto e ingreso más importante del Colegio dado que engloba la mayor parte de los servicios colegiales y se ha procurado ajustar al máximo este apartado adecuándonos a los previsibles ingresos de los que vayamos a disponer, sin que ello afecte a los servicios que habitualmente ofrece nuestra Institución a los colegiados y a la sociedad en general.

A continuación incluimos una breve explicación de aquellos gastos que dentro de servicios generales merecen, a nuestro entender, una mención especial dada su relevancia:

**- Biblioteca:**

Se mantiene la partida destinada a la Biblioteca con un elevado importe**,** *110.000* ***ú***, debido a la gran importancia que para el Colegio tiene el ofrecimiento de este servicio y que el mismo sea de la máxima calidad, poniendo a disposición de los colegiados un gran número de herramientas, tanto en papel como en soporte informático, que editan las empresas del sector. Ello se refleja en la amplia utilización que de ella hacen nuestros compañeros/as, con un gran número de personas que la visitan todos los días, convirtiéndose por ello en uno de nuestros principales servicios por lo que entendemos no deben escatimarse recursos en su actualización y mantenimiento.

Se siguen incrementando año a año las de bases de datos de Legislación y Jurisprudencia. En este apartado también se incluyen los mantenimientos de las bases de datos que el Colegio dispone en las sedes judiciales de los municipios de Barakaldo, Getxo, Durango y Gernika, así como en las oficinas de los Palacios de Justicia de

Barroeta Aldamar y de Buenos Aires de Bilbao. Ello nos obliga a un importante esfuerzo económico en las partidas de Biblioteca y Comunicaciones, pero consideramos resulta compensado por el importante servicio que se ofrece al colectivo.

**- Reparaciones y Conservación:**

Además de los gastos ordinarios de esta partida este ejercicio se ha presupuestado una cantidad relevante para la mejora en la accesibilidad de nuestras instalaciones que facilitará el acceso de las personas con problemas de movilidad a todas las dependencias colegiales.

También se ha incluido una partida relevante para finalizar la reparación del sistema de aire acondicionado y calefacción de la oficina colegial con el fin de solventar las averías que se están produciendo en los últimos años.

**- Servicio de Profesionales Independientes:**

Partida dotada en el apartado de servicios generales con *170.000* ***ú***. En este apartado se incluye la contratación de profesionales que colaboran con el Colegio en ofrecer servicios a los colegiados o los que se ofrecen al ciudadano, para lo que se cuenta con compañeros y compañeras en labores internas, tales como la redacción de los expedientes de minutas, servicio de honorarios o tramitación de los informes de responsabilidad civil o de la propia auditoría de las cuentas colegiales. Igualmente para este ejercicio se ha presupuestado la finalización de la implantación del nuevo sistema informático de gestión colegial, que entre otras cosas mejorará la posibilidad de comunicación con los colegiados, motivo por el que este año hemos dedicado una cantidad extraordinaria a tal fin.

**- Publicidad:**

Se contempla dentro de la partida correspondiente a publicidad en Servicios Generales, el gasto de *42.500* ***ú*** para continuar con la publicidad institucional, cantidad similar a la del año anterior. Con estas campañas se pretende mejorar la imagen de la abogacía ante la sociedad y muy especialmente ante sectores de posibles nuevos clientes (pequeños empresarios, autónomos, comerciantes, trabajadores, etc.) que no están habituados a ser usuarios de los servicios de un abogado/a, sirviéndonos para ello de los medios de comunicación e instrumentos que se estimen convenientes, para lo que es necesario incluir en el presupuesto una cantidad relevante con este destino.

Como puede contemplarse, no se trata de una cantidad que nos permita realizar una campaña permanente ni realizar un gran desembarco en los medios de comunicación, pero si seguir estando presentes en aquellos que por experiencia de los últimos ejercicios han dado un resultado satisfactorio.

**- Fondo de Solidaridad:**

La partida que se denominaba Obra Social pasó ha denominarse *Fondo de Solidaridad*, quedando establecida la cuantía presupuestada a tal fin para el ejercicio 2013 en *100.000* ***ú***, cantidad similar a la del ejercicio anterior, pero que nos permite cumplir los compromisos que el Colegio adquiere con el mantenimiento de esta ayuda a quienes fueron nuestros compañeros y se encuentran en estado de necesidad o a sus familiares, y que se adapta a las actuales necesidades de aquellos a los que se les han concedido las ayudas.

Después de haberse aprobado por la Junta de Gobierno en el año 2007 el reglamento que establece su forma de reparto y funcionamiento, está presupuestada para el año 2013 esta importante cantidad económica. Os recordamos que el reglamento que regula su aplicación y sistema de reparto lo puedes consultar en nuestra página web: www.icasv-bilbao.com.

**Servicios Varios:**

La cuenta *6292*, ***Servicios Varios***, refleja gastos de diversa índole que difícilmente se pueden encuadrar en otras partidas, por lo que se utiliza este nombre tan genérico y necesita de una explicación más detallada. Su cuantía ha sido presupuestada en cuantía muy inferior a la del año anterior, *109.200* ***ú***.

La rebaja tan importante de esta partida es debida principalmente a que desaparece del presupuesto la partida cantidad correspondiente al seguro de Incapacidad Profesional Transitoria (IPT, que supuso un importe de 351.600 ú en el ejercicio anterior). Esto no significa que deje de existir este seguro, sino que al haberse convertido en voluntario, exclusivamente para ejercientes residentes, no resultará ninguna carga para el Colegio y recibirá un tratamiento contable similar al del Seguro de Responsabilidad Civil, de forma que el Colegio contabilizará por un lado las cuotas que cobrará a los colegiados y por otro la cantidad que abonará a la compañía aseguradora, que será similar, por lo que desaparece como centro de coste.

En esta partida también se incluyen, señalados cada uno en su centro de coste, otros gastos menores, como son: los gastos derivados de desplazamientos por el servicio de Asistencia al Detenido y el Servicio de Asistencia a las Víctimas de Violencia Doméstica o las fotocopias del Turno de Oficio y la cantidad destinada por el Colegio a financiar proyectos del Tercer Mundo a través de la Comisión de Cooperación Internacional del Colegio, conforme al 1% establecido y asumido por nuestra Junta General, con un importe para este año de *32.300* ú. Dado que por los motivos expuestos se ha rebajado el total del presupuesto, sin embargo hemos mantenido invariable la cantidad destinada a cooperación Internacional, por lo que en realidad supone el 1,04% del total del presupuesto en vez del 1%.

**Personal:**

Son siempre las partidas más relevantes de nuestro presupuesto y ascienden a un total de *1.132.000* ***ú***, incluyendo en las mismas los sueldos y salarios de todos los centros de coste o actividades del Colegio, además de la cuota empresarial a la Seguridad Social así como otro tipo de cargas sociales correspondientes a los 28

trabajadores de que dispone el Colegio en todas sus dependencias y servicios. Esta cantidad supone el 36,37% del presupuesto total de gastos previstos para el ejercicio, porcentaje superior al de años anteriores, por los motivos antes expuestos. Como en el resto de conceptos, se ha realizado un desglose en función del tipo de labores que realizan, Servicios Generales, Escuela de Práctica Jurídica, Turno de Oficio o Tribunal de Arbitraje, incluyendo dentro del primero de ellos la mayor parte de su gasto al no poder imputarse su cuantía a otra actividad determinada que se recoja en la analítica, tal y como se ha indicado en la introducción.

Quisiéramos señalar unas **partidas o centros de costo que destacan** sobre las demás por su relevancia colegial o su importe económico:

## Escuela de Práctica Jurídica:

En cuanto a la Escuela de Práctica Jurídica, como ya sabéis su actividad no se ciñe exclusivamente al alumnado de la propia Escuela, sino que se extiende a lo que hoy llamamos **Formación Continua**, por dedicarse también a la organización de jornadas y cursos de reciclaje, así como al apoyo que ofrece a las diversas comisiones colegiales en la organización de sus jornadas; actividad muy valorada por el conjunto de colegiados y que se refleja en el gran número de personas que a lo largo del año se inscriben en alguna o algunas de las múltiples actividades que se organizan.

Se ha confeccionado para este ejercicio un presupuesto con un gasto sensiblemente superior al del ejercicio anterior, *397.570 ú*. Ello es debido al presumible aumento de la actividad, si bien a final del ejercicio, como consecuencia de la entrada en vigor de la Ley de Acceso y a la necesidad de la realización de la Escuela a los futuros colegiados, por lo que esperamos un incremento de los alumnos. Con esta cantidad está previsto organizar además de la actividad ordinaria de la Escuela, un gran número de jornadas y conferencias de la que podrán beneficiarse todos los compañeros/as que lo deseen.

Tal y como ya indicábamos en la memoria del ejercicio pasado, durante estos últimos años por parte de la Junta de Gobierno se está dando un fuerte impulso a nuestra Escuela de Práctica Jurídica, convirtiéndola en un auténtico "Centro de Formación", en la confianza de que con este esfuerzo su relevancia sea aún mayor en un futuro no muy lejano.

## Turno de Oficio y Asistencia:

No podemos dejar de mencionar todos los años este apartado que refleja los ingresos y gastos de esta importante labor que se encuentra en manos de la Abogacía y absorbe gran parte del tiempo de muchos de nuestros trabajadores así como de los medios que el Colegio dedica a la misma.

Tal y como se realiza habitualmente, se incluye una importante cantidad, *585.500 Euros*, como reflejo de los gastos que al Colegio le supone el mantenimiento de la infraestructura de la Asistencia Jurídica Gratuita y el Turno de Oficio. Como puede comprobarse en este ejercicio no se ha podido presupuestar, como en los últimos ejercicios, un saldo cero de esta partida ya que según las previsiones de ingreso por

subvenciones que tenemos en base al nuevo de Decreto de Justicia Gratuita, no se cubren totalmente los gastos que consideramos necesarios para el mantenimiento de dichos servicios.

En esta partida se incluyen los gastos que ocasionan al Colegio el funcionamiento de todos los Turnos de Oficio, de las diversas modalidades de la Asistencia al Detenido y también los que se derivan por el funcionamiento de la oficina del Servicio de Orientación Jurídica. También se incluyen los de infraestructura del servicio de Asistencia a Víctimas de Violencia de Género que supone un gasto adicional importante y que también se financia con la consiguiente subvención del Gobierno Vasco, e igualmente los gastos derivados del Servicio Especial de Extranjería (SAJE) creado el pasado año.

## Publicaciones:

Seguimos comprobado la gran aceptación que entre nuestro colectivo tiene la publicación y consiguiente reparto gratuito de obras jurídicas o códigos sobre materias de común interés para la gran mayoría, obtenidas por parte del Colegio a un precio muy reducido. Por este motivo por la Junta de Gobierno se ha considerado importante seguir dotando de manera elevada esta partida para el próximo año y destinar *46.000* ***ú*** para la compra o edición de nuevas obras.

## Comisión de Cultura:

Quisiéramos destacar especialmente la consolidación de la actividad de esta comisión, que con una dotación presupuestaria relativamente austera, *13.900* ***ú*** para este ejercicio, esperamos siga dinamizando el Colegio con actividades culturales dirigidas no solo a los colegiados sino al público en general, abriendo a la sociedad vizcaína nuestras instalaciones y nuestro colectivo. Son muchos y muy variadas las actividades de las que a lo largo del año podemos disfrutar, conciertos, actuaciones, exposiciones, etc., todas ellas de gran calidad y muy valoradas por los asistentes. Igualmente participa de forma muy activa a través del apartado cultural que se publica en todos los números de nuestra Revista.

El presupuesto sigue manteniendo las partidas habituales destinadas a otras comisiones o grupos de estudio cuya actividad siguen dinamizando el Colegio y ofreciendo a todo aquel colegiado que lo desee, la posibilidad de participación en sus muchas actividades. Así se mantienen partidas presupuestarias destinadas a las comisiones de Mujeres, Deportes, Euskera, Asistencia Penitenciaria, Relaciones Internacionales, Coro o Jóvenes Abogados, y Los Grupos de Estudio de Dº de Familia, Dº Foral, Medio Ambiente y Sostenibilidad, Dº laboral, Nuevas tecnologías, Mediación, Dº de Consumo y Dº del Mayor.

## INGRESOS:

## Cuotas periódicas:

Dentro de los ingresos colegiales, como es habitual, la partida más relevante es la de las **cuotas periódicas**, y que como ya se ha indicado al comienzo, **no se han incrementado** con respecto a lo cobrado a los colegiados **en los cinco anteriores ejercicios**.

Sin embargo la cantidad que por este concepto se presupuesta si se ha incrementado debido al aumento en el número de colegiados que se ha producido en el Colegio, derivado por la entrada en vigor de la nueva Ley de Acceso a la profesión.

Las cuotas individualizadas por colegiado contemplan el **escalonamiento** aprobado hace ya **doce** años por la Junta General, con reducciones del 50 y 25% para los ejercientes residentes con un tiempo de colegiación inferior a 2 o 5 años respectivamente.

Las **cuotas colegiales anuales** previstas para el **año 2013** quedan, al igual que los años anteriores, de la siguiente forma:

**Ejercientes residentes**

| | |
|---|---|
| - Más de 5 años de colegiación: | 479,56 Euros |
| - De 2 a 5 años de colegiación: | 359,67 Euros |
| - Menos de 2 años de colegiación.: | 239,78 Euros |
| - Más de 50 años de colegiación: | Sin cuota |

**Ejercientes no residentes**

| | |
|---|---|
| - Cuota anual: | 207,70 Euros |
| - Más de 50 años de colegiación: | Sin cuota |

**No Ejercientes**

| | |
|---|---|
| - Cuota anual: | 207,70 Euros |
| - Más de 40 años de colegiación: | Sin cuota |

Además de estas cantidades hemos de recordar que los recibos trimestrales del Colegio incluyen otros conceptos que se giran, pero que no forman parte del presupuesto del Colegio, estas son: las **cuotas de Consejo General** (con rebaja de 3 ú de cuotas respecto al año 2012) **y Consejo Vasco** (con mantenimiento de importes respecto a años anteriores), que no dependen directamente de las decisiones de nuestro Colegio y que se giran a todos los residentes, sean ejercientes o no, y el **Seguro de Responsabilidad Civil y Accidentes** contratado por el Colegio para todos los ejercientes residentes exclusivamente.

La **cuota de IPT** (Prestación por Incapacidad Profesional Transitoria para los ejercientes residentes,), que ha pasado a ser voluntaria, quedando establecida en 124 Euros para el 2013.

Se incluye en este folleto un cuadro explicativo con todas las cuotas que se abonan a lo largo del año con especificación de todas las circunstancias posibles.

El **cobro** de las cuotas seguirá siendo **trimestral**, devengándose el **primer día del período**, teniéndose en cuenta para el establecimiento de la cuota a aplicar, la situación en la que en ese momento se encuentre el colegiado respecto a su antigüedad, residencia o si es ejerciente o no ejerciente.

## Subvenciones:

El segundo de los apartados por volumen de ingresos es el correspondiente a las subvenciones que por diversos conceptos recibe el Colegio, y que en este ejercicio se prevén exclusivamente del Gobierno Vasco, con motivo de los servicios de Asistencia Jurídica Gratuita, de Violencia Doméstica, el Especial de Extranjería, así como el de Asistencia Penitenciaria en el Centro de Basauri.

**El Gobierno Vasco eliminó el pasado año la subvención** que veníamos recibiendo para ayudar **a financiar la Escuela de Práctica Jurídica**, por lo que tuvimos que adaptar nuestro presupuesto a dicha desaparición. No nos parece adecuada la decisión a pesar de la situación de crisis generalizada por lo que seguiremos demandando su recuperación, pero por ahora debemos eliminar esa cuantía como parte de nuestros previsibles ingresos.

El importe que por el conjunto de subvenciones asciende a la cantidad de *604.000* ***ú***, siendo la partida más relevante la correspondiente al Turno de Oficio, por importe de 558.000 ú.

La cuantía total del Presupuesto experimenta, tal y como se ha indicado al inicio, un **descenso del 5,35 %** respecto al del año anterior.

En este mismo documento presentamos un cuadro explicativo de las cuotas que por todos los conceptos cobrará el Colegio trimestralmente, en función de la situación de cada colegiado.

Agradecemos vuestra colaboración y esperamos contar con vuestra presencia en la Junta General que se convoca para la aprobación de este Presupuesto.

Bilbao a 29 de noviembre de 2012

**LA JUNTA DE GOBIERNO**

# 2013. URTEKO AURREKONTUAREN PROIEKTUA

## TXOSTENA

Gobernu Batzordeak aurkezten duen aurrekontu honetan Abokatuen Bazkunak **2013ko ekitaldian** erdietsi nahi dituen xedeetara bideratutako baliabide ekonomikoak jaso dira. Beti bezala, proposamen honen onarpena Batzar Nagusiari dagokio. Aurrekontua egiteko, kontabilitateko printzipio hauek kontuan hartu dira: zuhurtasuna, eraginkortasuna eta gastuari eustea. Bazkunak eskaintzen dituen zerbitzuak berdin-berdin mantenduko dira, **kuotak ï bosgarren urtezï handitu gabe**.

Dena den, badago desberdintasun bat aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, izan ere, Gobernu Batzak aurkeztutako aurrekontu hau aurrekoa baino txikiagoa da. Zehatz esanda, gastuak eta sarrerak % 5,34 txikitu dira, 2012ko aurrekontuarekin konparatuta. Txikitze horren arrazoi nagusia honakoa da: Lanerako Ezintasun Iragankorra aurrekontutik kendu da (LEIk aurreko ekitaldian 351.600 ú izan zituen). Horrek ez du esan nahi ezintasun iragankorraren inguruko asegurua desagertu denik: hemendik aurrera borondaztekoa izango denez, Bazkunak ez du horrekiko inolako betebeharrik izango eta Erantzukizun Zibilaren inguruko Aseguruaren modukoa izango da. Beraz, Bazkunak, alde batetik, kuotak kobratuko dizkie elkargokideei eta, bestetik, aseguru-etxeari ordainduko dio. Laburbilduz, gastu gune hori aurrekontuan desagertuko da.

Horrez gain, BEZaren igoera gertatu da. Abokatuen Bazkuna azken kontsumitzailetzat jo behar da eta, ondorioz, ondasun edo zerbitzuren bat erostean, igoera aplikatu behar da. Beraz, gure hornitzaileei ordaindu beharrekoetan igoera bat dago.

Ohi bezala, elkargoak duen kontabilitate analitikoa erabili da eta horrela elkargokideek argi eta garbi azter dezakete aurrekontua; hori dela eta, batetik, kostu edo gastu guneak eta kontzeptuak zehatz azaltzen dira, eta, bestetik, diru sarrerak.

Halaber, partida bakoitzaren alboan, aurreko urteko aurrekontuko datua ipini da, kontzeptu guztiak aztertu eta horien garapena ikusi ahal izateko.

Lehenengo bi zutabeetan, ondoko zutabe guztien batuketa agertzen da, gastu guneak kontuan hartuta; lehenengo zutabea 2013ko aurrekontuaren proiektuari dagokio eta bigarrena, iazko aurrekontuari.

Beraz, txostenean, aurrekontuaren partida guztiak banan-banan jaso dira gastu-zentro bakoitzaren arabera, eta nabarmentzeko modukoak diren zenbait alderdi jarraian aipatuko dira. Hala ere, Bazkuneko diruzainak informazio eta azalpen zehatzak eskainiko ditu datorren **abenduaren 28an, 13,00etan,** Bazkuneko Ekitaldi Aretoan (Uribitarteko Arrapalak, 3) egingo den **Batzar Nagusian.**

**Aurrekontuko partida batzuk zehatzago aipatu nahi ditugu:**

## GASTUAK:

## Zerbitzu orokorrak:

Kontzeptu honetan gure elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrera guztiak bildu dira, hau da, jarduera zehatz bati ez dagozkionak. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

Atal honetan, beraz, Bazkunaren kudeaketa arruntaren gastuak, eraikinaren mantentzeari eta kontserbazioari dagozkion gastuak, elkargoko bulegoek eta administrazioak sortutakoak, baita Justizia Jauregietan ditugun egoitzetan sortutako gastuak, liburutegiarenak, telefonoak eta egoitzen arteko lotura mantentzeak sortutakoak, Wi-Fi edota web orrialdea mantentzearenak, informatika gastuak, elkargokide berrien zin-egiteak eragindakoak edo elkargoaren fotokopiagailuak eta inprimagailuak egoitza guztietan mantentzeak eragindako gastuak, etab.; baita enplegatuak ordaintzeko eta profesionalak kontratatzeko orduan sortzen diren gastuak; horiek guztiak ez daude jarduera zehatz bati lotuta: elkargoko zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindakoak dira.

Aurretik esan dugun moduan, kopururik handiena duen gastu eta sarrera gunea da, izan ere, Bazkunaren zerbitzu gehienak hemen jasotzen dira. Atal hau asko zaindu dugu, aurreikusitako diru-sarrerak aintzat hartuta. Aldi berean, Bazkunak kideei eta gizarte osoari eskainitako zerbitzu horien kalitatea ez da gutxituko.

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

**- Liburutegia:**

Bazkunaren Liburutegiari dagokion partida gastu garrantzitsua da, eta kopuru handia eskaini zaio, *110.000* ***ú***, kalitatezko zerbitzua eskaintzeak garrantzi handia duelako, argitaletxeek argitaratzen dituzten erreminta guztiak, paperean zein euskarri informatikoan, elkargokide guztien eskura jartzen baititu. Horregatik liburutegia asko erabiltzen da, elkargokide askok egunero erabiltzen dute eta, beraz, zerbitzu nagusietakoa da. Hori dela eta, Liburutegia eguneratu eta mantentzeko bitarteko nahiko erabili behar ditugu.

Legeriaren eta jurisprudentziaren Internet bidezko datu-baseen sistemak urtero-urtero handitzen ari dira. Era berean, elkargoak sistema horietara dituen konexioak mantendu egiten dira, Barakaldon, Getxon, Durangon eta Gernikan, baita Bilboko Barroeta Aldamar kaleko Justizia Jauregiko bulegoan ere. Horren eraginez, Liburutegia eta Komunikazioak izeneko ataletan gastu handia egin behar dugu, baina gure ustez hori egitea bidezkoa da, abokatuen kolektiboari zerbitzu garrantzitsua eskaintzen zaio eta.

**- Konponketak eta mantentze lanak:**

Partida honetan, ohiko gastuak jasotzeaz gain, irisgarritasuna hobetzeko diru kopuru nabarmena sartu dugu aurten. Horrela, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak askoz errezago iritsiko dira Bazkunaren egoitza eta bulegoetara.

Aurrekoaz gain, badago beste partida aipagarri bat. Hain zuzen, Bazkunaren bulegoetako aire girotua eta berogailua konpontzeko asmoa dugu, azken urteetako matxurak errepikatu ez daitezen.

**- Profesional Independenteen Zerbitzua:**

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi *170.000* ***ú*** dagozkio. Atal honetan, elkargokideei edo herritarrei zerbitzuak eskaintzeko Bazkunarekin lankidetzan aritzen diren profesionalen kontratazioa jaso da. Horretarako, elkargokide batzuek barruko eginkizunak egiten dituzte, besteak beste, minuta-espedienteak, ordainsari-zerbitzuak, erantzukizun zibileko txostenen izapidetza eta kontu-auditoriak. Era berean, elkargoaren kudeaketarako sistema informatiko berria ekitaldi honetan erabat gorpuztuko da. Horri esker, besteak beste, elkargokideekin komunikazioa hobetuko da. Hori dela eta, aurten atal horretara diru kopuru gehiago bideratu dugu.

**- Publizitatea:**

Publizitateari dagokion partidaren barruan, *42.5000* ***ú***-ko gastua ezarri da erakundearen publizitatea egiten jarraitzeko (iazko diru kopuru bera), abokatutzak gizartean duen irudia hobetzeko, batez ere, gure zerbitzu profesionalak erabiltzera ohituta ez dauden bezero berrien sektoreei begira (enpresaburu txikiak, autonomoak, merkatariak, langileak, etab.). Horretarako, komunikabideak eta egokitzat jotzen diren gainerako tresnak erabiliko dira eta, beraz, aurrekontuan xede horretarako kopuru handi bat sartu behar da.

Diru hori, jakina, ez da nahikoa gure publizitatea etengabe eta hedabide guztietan egiteko. Baina kopuru horri esker aurreko urteetan guretzat onuragarri izan diren hedabideetan agertuko gara.

**- Elkartasun Funtsa:**

Aurreko urteetako Gizarte Ekintzari *Elkartasun Funts* esaten zaio orain. 2013ko ekitaldiko aurrekontuan *100.000* ***ú***-ko kopurua ezarri da horretarako; beraz, kopurua mantendu da. Diru horrekin Bazkunak gure kide eta horien familiako behartsuenei lagunduko die, hartutako konpromisoen arabera.

Gobernu Batzordeak 2007. urtean banatzeko eta funtzionatzeko modu berria ezartzen duen arautegia onetsi ondoren, aipatu dugun dirutza ezarri da elkartasun funtserako 2013. urteko aurrekontuetan. Arautegia kontsultatzeko, gure web-orrialdera jo: www.icasv-bilbao.com.

**<u>Bestelako zerbitzuak:</u>**

*6292* partidan, ***Bestelako zerbitzuak*** izenekoan, mota guztietako gastuak sartzen dira, gastu horiek beste partidetan kokatzea zail samar denean. Beraz, izen orokor hori erabiltzen da eta argibideak ematea bidezkoa da. Datorren ekitaldirako zenbatekoa nabarmen murriztu da, *109.200* ***ú***-ko kopurua ezarri da eta.

Murrizketaren arrazoia honako hau da: Lanerako Ezintasun Iragankorra aurrekontutik desagertu da (aurreko ekitaldian LEIk 351.600 ú izan zituen). Horrek ez

du esan nahi ezintasun iragankorraren inguruko asegurua desagertu denik: hemendik aurrera borondaztekoa izango denez, Bazkunak ez du horrekiko inolako betebeharrik izango eta Erantzukizun Zibilaren inguruko Aseguruaren modukoa izango da. Beraz, Bazkunak, alde batetik, kuotak kobratuko dizkie elkargokideei eta, bestetik, aseguru-etxeari ordainduko dio. Laburbilduz, gastu gune hori jadanik ez dago aurrekontuan.

Halaber, partida horretan beste gastu txiki batzuk sartu dira (bakoitza dagokion gastu-zentroan zehaztuta): Atxilotuari Laguntzeko Zerbitzuak nahiz Orientazio Juridikorako Zerbitzuak sortutako bidaia gastuak sartu dira, baita Ofizioko Txandaren fotokopienak ere. Hirugarren Munduari laguntzeko egitasmoen kostua ere hor dago; Batzar Nagusiak babestu eta Bazkunaren Kooperaziorako Batzordeak kudeatutako egitasmo horiek aurrekontuen % 1 hartzen dute, hau da, 32.300 ú-ko kostua. Aurrekontua, azaldu bezala, murriztu da baina nazioarteko kooperaziora bideratutako dirua mantendu dugu; hortaz, egia esan, aurrekontuaren % 1 izan beharrean, % 1,04 erabiliko dugu xede horretarako.

**Langileak:**

Beti bezala, gure aurrekontuaren partidarik garrantzitsuenak dira, gaur egun, *1.132.000* ***ú*** guztira, hurrengo hauek barruan hartuta: Bazkunaren gastu-gune eta jarduera guztietatik eratorritako soldatak eta alokairuak; hor Gizarte Segurantzarekin dauden kasuan kasuko betebeharrak eta Bazkunak bulego eta zerbitzu guztietan dituen 28 langileei dagozkien gainerako gizarte-zamak. Kopuru hori ekitaldirako aurreikusitako gastuen aurrekontu osoaren % 36,37 da. Langileei dagokienez, eginkizunen araberako sailkapena egin da, eta kontuan hartu dira Zerbitzu Orokorrak, Praktika Juridikoko Eskola, Ofizioko Txanda eta Arbitraia Epaimahaia. Langileen gastu gehiena Zerbitzu Orokorrak izeneko atalean sartu da, ezinezkoa izan baita beste inon egotzi, sarreran aurreratu dugun moduan.

**Gastu gune batzuk nabarmendu** behar ditugu, Bazkunarentzat oso garrantzitsuak direlako edo diru asko eskatzen dutelako:

## Praktika Juridikoko Eskola:

Praktika Juridikoko Eskolari dagokionez, horren jarduera ez dagokie Eskolako ikasleei modu esklusiboan, gaur egun **Etengabeko Prestakuntza** deitzen dugun horretara hedatzen da eta; horren harira, elkargokide guztiei begira jardunaldiak eta birziklatze-ikastaroak antolatzen dira. Esan behar da lan hori elkargokideek asko estimatzen dutela: urte osoan pertsona askok ematen dute izena antolatzen diren mota desberdinetako jardueretan.

Ekitaldi honetarako gastu horren aurreikuspenak apur bat gora egin du: *397.570* ***ú***, izan ere, Eskolaren jarduna handituko da. Baina kontuan hartu behar da ekitaldiaren amaieran ikasle gehiago egotea espero dugula, Lanbidean Sartzeko Lege berria indarrean jartzearen ondorioz. Aurreikuspenen arabera, kopuru horrekin, Eskolako ohiko jarduerez gain, jardunaldi eta hitzaldi ugari antolatu nahi dira, elkargokide guztiei bideratuta.

Iazko txostenean adierazi genuen moduan, Gobernu Batzordearen asmoen artean egon da hurrengo urteetan gure Praktika Juridikoko Eskola gogoz bultzatzea eta

benetako ñprestakuntza guneaò bihurtzea, eta lan horren inguruko lehenengo pausoak jadanik eman ditugu: ideia hori benetan gauzatzen ari da eta etorkizun hurbilean garrantzi gero eta handiagoa izango du.

## Ofizioko Txanda eta Laguntza:

Ezin dugu aipatu gabe utzi, urtero bezala, ofizioko txanda eta laguntza, bertan abokatutzaren eskuetan dagoen lan garrantzitsu bat islatzen da eta. Gainera, Bazkuneko langileek ordu asko ematen dituzte arlo horretan eta Bazkuneko aurrekontu osoaren zati handi bat ere gai horri dagokio.

Aurreko aurrekontuetan egin zen moduan, kopuru garrantzitsua eskaini zaie, 585.500 euro, Bazkunak zerbitzu hauen azpiegiturari eusteko dituen gastuei aurre egiteko. Hala ere, aurten badago berritasun nabarmen bat: partida honek ez du zero saldorik, izan ere, Doako Justiziari buruzko Dekretuaren erruz, sarrera-aurreikuspenak ez dira nahiko izango jarduera honek sortutako gastuak estaltzeko.

Partida honetan, zerbitzu hauen funtzionamenduak Bazkunari eragin ahal dizkion gastuak sartu dira: Ofizioko Txanda guztiak, Atxilotuari Laguntzeko modu desberdinak eta Orientazio Juridikorako Zerbitzua. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza emateko Zerbitzuaren azpiegitura-gastuak gehitu dira —diru asko da baina Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du, aurretik esan dugunez—, baita iaz sortutako Atzerritarren Zerbitzu Bereziaren gastuak.

## Argitalpenak:

Paperezko lan juridikoen doako banaketak izugarrizko arrakasta izaten du gure artean. Guztiontzako interesgarriak diren lan horiek Bazkunak merke eskuratu eta banatu ditu. Hori dela eta, datorren urteari begira partida maila altu horretan mantentzea erabaki dugu: 46.000 ú  izango dira, halako lanak erosi edo argitaratzeko.

## Kultura Batzordea:

Batzorde horren lana sendotu dela azpimarratu nahi dugu. Ekimen horrek ez du diru askorik (13.900 ú) baina Bazkunari bizitasuna emanez jarraitzea espero dugu; horretarako, guri eta gizarte osoari zabaldutako ekitaldiak antolatzen jarraituko dute, Abokatuen Bazkuneko eraikina eta gizataldea bera Bizkaiko gizarteari hurbilduz. Urtean zehar asko eta asko dira antolatutako ekitaldiak, denak kalitate handikoak eta bertaratutakoen gustukoak: musika kontzertuak, erakusketak, etab. Azkenik, esan behar da Kultura Batzordeak Bazkunaren aldizkarian atal finko bat duela.

Aurrekontuan beste batzordeen eta azterlan taldeen ohiko partidak bere horretan mantendu egin dira. Talde horiek guztiek Bazkunari bizitasuna ematen diote eta elkargokidei aukera ematen die hainbat eta hainbat ekimenetan parte hartzeko. Horrenbestez, batzordeentzat (Emakumeak, Kirolak, Euskara, Espetxe laguntza, Nazioarteko harremanak, Abesbatza eta Abokatu gazteak) eta azterlan taldeentzat (Familia zuzenbidea, Foru zuzenbidea, Ingurumena eta jasangarritasuna, Lan zuzenbidea, Teknologia berriak, Bitartekaritza, Kontsumo zuzenbidea eta Nagusien zuzenbidea) badago dirurik aurreikusita.

# SARRERAK:

## Aldizkako kuotak:

Bazkunaren sarreren barruan, partidarik garrantzitsuena, beti bezala, kideok ordaintzen ditugun **aldizkako kuotak** dira. Hasieran esan dugun moduan, **kuotak ez dira handitu** aurreko bost ekitaldietan.

Hala ere, aurrekontuetan kontzeptu horretarako ezarritako kopuruak gora egin du elkargokideen kopurua handitu delako, Lanbidean Sartzeko Lege berria indarrean dago eta.

Kuotak duela hamabi urte Batzar Nagusiak onetsitako **mailakatzearen** arabera antolatuta daude, hau da, 2 edo 5 urte baino aldi laburragoan sartu diren bertako jarduneko elkargokide egoiliarrei, hurrenez hurren, % 50 eta % 25eko murrizketak eginda.

**2013. urtean, Bazkunaren urteko kuotak** hauek izango dira (aurreko urteetan bezala):

**Jarduneko kide egoiliarrak**

| | |
|---|---|
| - 5 urte baino gehiago elkargoan: | 479,56 euro |
| - 2 urtetik 5 urtera elkargoan: | 359,67 euro |
| - 2 urte baino gutxiago elkargoan: | 239,78 euro |
| - 50 urte baino gehiago elkargoan: | Kuotarik gabe |

**Jarduneko kide ez egoiliarrak**

| | |
|---|---|
| - Urteko kuota: | 207,70 euro |
| - 50 urte baino gehiago elkargoan: | Kuotarik gabe |

**Jardunean ez daudenak**

| | |
|---|---|
| - Urteko kuota: | 207,70 euro |
| - 40 urte baino gehiago elkargoan: | Kuotarik gabe |

Kopuru horiek ez dute zerikusirik hiru hilerik behin igorritako ordainagirietan agertzen diren bestelako kontzeptuekin, horiek ez baitira elkargoko aurrekontuaren atalak: **Kontseilu Nagusiaren kuotak** (iaz baino 3 ú gutxiago) **eta Euskal Kontseiluaren kuotak** (igoerarik gabe), zuzen-zuzenean gure erabakien araberakoak ez direnak eta egoiliar guztiei igortzen zaizkienak, eta **Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako Asegurua**, jarduneko egoiliarrei bakarrik aplikatzen zaiena.

**LEI kuota** (Lanbide Ezintasun Iraunkorraren ondoriozko prestazioa, jardunean dauden egoiliar guztientzako) ez da handitu; beraz, 2013an 124 euro izango dira. Gogoratu orain borondatezkoa dela.

Liburuxka honetan urte osoan ordaintzen diren kuotak azaltzeko taula bat gehitu da, inguruabar posible guztiak zehaztuta.

Kuotak **hiru hilerik behin kobratzen** jarraituko dugu, aldiaren lehen egunean. Zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko dira elkargokidearen une horretako egoera, egoitza eta elkargoan daraman denbora.

## Diru-laguntzak:

Sarreren barruan bigarren atal garrantzitsua diru-laguntzena dugu. Bertan, hainbat arrazoi direla eta, Bazkunak jasotako diru-laguntzak batzen dira. Ekitaldi honetan horietako denak Eusko Jaurlaritzatik datoz, Bazkunak egindako jarduerengatik: Doako Laguntza Juridikoa, Etxeko Indarkeriaren inguruko Laguntza, Atzerritartasunarena eta Basauri egindako Espetxe Laguntza).

Aipatu egin behar da **Eusko Jaurlaritzak iaz kendu egin zuela Praktika Juridikoko Eskola finantzatzen** laguntzeko eman ohi zigun diru-laguntza. Hori dela eta, gure aurrekontua egoera berri horretara egokitu behar izan genuen. Erabakia ez zaigu egokia iruditzen, krisian murgilduta egon arren. Diru-laguntza hori berriz jasotzea eskatzen jarraituko dugu, baina oraingoz zenbateko hori gure diru-sarreretatik kendu behar izan dugu.

Diru-laguntzen atal horretan *604.000* ***ú*** ezarri dira; zati inportanteena Ofizioko Txandari dagokio: 558.000 ú.

Dokumentu honen hasieran esan bezala, aurrekontuaren kopuru osoa **% 5,35 txikitu da** aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuz gero.

Elkargokide mota bakoitzaren egoera aintzat hartuta elkargoak hiru hilerik behin kontzeptu guztiengatik kobratzen dituen kuoten azalpen-taula gehitu dugu.

Azkenik, zuon arreta eskertu nahi dugu. Horrez gain, aurrekontu hau onesteko egingo den Batzar Nagusira bertaratuko zarelakoan gelditzen gara.

Bilbon, 2012ko azaroaren 29an

**GOBERNU BATZORDEA**